Aurtengo festatako antzeko 10 postu jartzeko eskaera egon direnez, eta plaza inguruan ez dagoenez hainbat postu jartzeko lekurik, 4 baimentzea eta lau erreserban edukitzea erabaki du. Horretarako batzarrean bi zozketa egin dira. Lehengo zozketa, 4 postu baimentzeko, eta bigarren zozketa erreserban gelditu direnen artean lehentasuna ezartzeko.

Bigarren zozketan, Elsa Maribel Muelanaren eskaera atere da, erreserbako laugarren postuan

Idazkariak, bide publiko eta herrilurretako zoru, hegaladura eta zorupeko aprobetxamendu berezien prezio publikoak arautzen dituen ordenantza, aplikatu behar dela jakinarazten dio Udalbatzari, aipatutako postuarekin egiten den jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren erabaki du:

1.-Elsa Maribel Muelanari eskatutako baimena ezeztea, eta erreserban uztea, aurretik aipatutako postuan. Erreserba zerrrendaz baliatu behar ezker, udalak horrela jakinarazita, eskatzailek baimena izango du, erreserba zerrrendako ordenean eta ondorengo baldintzetan

- Postuaren tamaina 3 metro luze eta 1,5 metro zabal baino handiagokoa ez da izango, eta ezingo da postuaren ondoan ibilgailurik aparkatu
- Erabilitako edo okupatutako kokalekua erabilpenaren aurretik zegoen moduan utzi beharko da.
- Ezbeharririk gertatzekotan lizentziaren titularraren ardura izango da.
- Goizuetako Udalak erabakiko du eta zehaztuko du postuaren kokalekua.
- Postua kokatzen den momentutik, lizentzia begi bistan egon beharko da.
- Postuan saltzen egon behar duen pertsonak, tasa ordainduta dagoenaren ziurtagiria Udaletxeko langileen eskura eduki beharko du.

2.-Tasa dagokionean postua instalatua egon behar duen egun bakoitzeko 12 € kobratzea, akordio honi eransten zaion zerga jakinarazpenean zehazten delarik zenbatekoa.

4.10.- JOAQUIN BATISTA BERNARDO. 2018ko Goizuetako festetan “Tiro Caseta” eta “jostailu mahaia” jartzeko baimen eskaera.

Joaquin Batista Bernardo Jauna Goizuetako Udalera zuzendu da eta Goizuetako 2018ko



Amabirjin jaietan, “Tiro Kaseta” postua eta “Joku mahaia” jartzeko baimena eskatu du

Idazkariak, bide publiko eta herrilurretako zoru, hegaldura eta zorupeko aprobetxamendu berezien prezio publikoak arautzen dituen ordenantza, aplikatu behar dela jakinarazten dio Udaltzari, aipatutako postuarekin egiten den jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren erabaki du:

1.-Joaquin Batista Bernardo Jaunari 6 egunetan “Tiro Caseta” eta” Jostailu mahaia” jartzeko baimena (lizentzia) ematea, ondorengo baldintzekin:

- Erabilitako edo okupatutako kokalekua erabilpenaren aurretik zegoen moduan utzi beharko da.
- Ezbeharririk gertatzekotan lizentziaren titularraren ardura izango da.
- Goizuetako Udalak erabakiko du eta zehaztuko du postuaren kokalekua.
- Postua kokatzen den momentutik, lizentzia begi bistan egon beharko da.
- Postuetan saltzen egon behar duen pertsonak, tasa ordainduta dagoenaren ziurtagiria Udaletxeko langileen eskura eduki beharko du.

2.-Tasa dagokionean “Tiro kaseta” postua instalatua egon behar duen egun bakoitzeko 72 € kobratzea, eta “Joku mahaia” postua instalatua egon behar duen egun bakoitzeko 12€ kobratzea, akordio honi erantzen zaion zerga jakinarazpenean zehazten delarik zenbatekoa.

4.11.- Laurindo Da Conceicao Machado. 2018ko Goizuetako festetan “Torito Mecanico” jartzeko baimen eskaera.

Laurindo Da Conceicao Machado Jauna Goizuetako Udalera zuzendu da eta Goizuetako 2018ko Amabirjin jaietan, “Torito Mecanico” atrakzioa jartzeko baimena eskatu du

Idazkariak, bide publiko eta herrilurretako zoru, hegaldura eta zorupeko aprobetxamendu berezien prezio publikoak arautzen dituen ordenantza, aplikatu behar dela jakinarazten dio Udaltzari, aipatutako postuarekin egiten den jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren erabaki du:

1.-Laurindo Da Conceicao Machadori 5 egunetan “Torito Mecanico” atrakzioa jartzeko baimena (lizentzia) ematea, ondorengo baldintzekin:

- Erabilitako edo okupatutako kokalekua erabilpenaren aurretik zegoen moduan utzi beharko da.
- Ezbeharririk gertatzekotan lizentziaren titularraren ardura izango da.
- Goizuetako Udalak erabakiko du eta zehaztuko du postuaren kokalekua.
- Postua kokatzen den momentutik, lizentzia begi bistan egon beharko da.
- Postuetan saltzen egon behar duen pertsonak, tasa ordainduta dagoenaren ziurtagiria Udaletxeko langileen eskura eduki beharko du.

2.-Tasa dagokionean “Torito macanico” atrakzioa instalatua egon behar duen egun bakoitzeko 72 € kobratzea, akordio honi erantzen zaion zerga jakinarazpenean zehazten delarik zenbatekoa.

4.12.- Saturnina Do Santos De Los Angeles. 2018ko Goizuetako festetan “Txurro” postua jartzeko baimen eskaera.

Saturnina Do Santos De Los Angeles Goizuetako Udalera zuzendu da eta Goizuetako 2018ko Amabirjin jaietan, “Txurro” postua jartzeko baimena eskatu du

Idazkariak, bide publiko eta herrilurretako zoru, hegaldura eta zorupeko aprobetxamendu berezien prezio publikoak arautzen dituen ordenantza, aplikatu behar dela jakinarazten dio Udaltzari, aipatutako postuarekin egiten den jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren erabaki du:



1.-Saturnina Do Santos De Los Angeleseri 5 egunetan “Txurro” postua jartzeko baimena (lizentzia) ematea, ondorengo baldintzekin:

- Erabilitako edo okupatutako kokalekua erabilpenaren aurretik zegoen moduan utzi beharko da.
- Ezbeharrrik gertatzekotan lizentziaren titularraren ardura izango da.
- Goizuetako Udalak erabakiko du eta zehaztuko du postuaren kokalekua.
- Postua kokatzen den momentutik, lizentzia begi bistan egon beharko da.
- Postuetan saltzen egon behar duen pertsonak, tasa ordainduta dagoenaren ziurtagiria Udaletxeko langileen eskura eduki beharko du.

2.-Tasa dagokionean “Txurro” postua instalatua egon behar duen egun bakoitzeko 72 € kobratzea, akordio honi eransten zaion zerga jakinarazpenean zehazten delarik zenbatekoa.

4.13.GOIZUTEKO TXOSNA BATZORDEA. Ikastolako taberna eta Etxera txozna jartzeko baimen eskaera

Miren Terese Uitz Salaberria Anderea, Goizuetako Txosna Batzordearen izenean, Goizuetako Udalera zuzendu da, 2018 urteko Goizuetako Festatako ondorengo eskatuz:

-Ikastolako Taberna, ikastolako atarian jartzeko baimena eskatzen zaio udalari, eta aldi berean ura eta argi indarra ere eskatzen dira. Argia, posible balitzake abuztuaren 10erako

-Etxera txozna, "Kotxoa" etxearen alboan jartzeko baimena eskatzen da.

-Aldi berean, dantzatako lokalerako eskailerak festa aurretik moldatzea, ezbeharrrik gerta ez dadin eta barneko behin behineko atea kentzea esku da.

Idazkariak, udalbatzari jakinarazten dio, bide publiko eta herrilurretako zoru, hegaldura eta zorupeko aprobetxamendu berezien prezio publikoak arautzen dituen ordenantza, aplikatu behar dela, bai Ikastolako Taberna eta bai Etxera txoznak egiten duten jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik. Udalbatza jakinen gainean gelditzen da. Udalbatzak guztiaren berri duelarik aho batez erabaki du:

-1. Ikastolako Taberna Ikastolako aurrealdean jartzeko baimena (lizentzia) ematea, beti ere afektatutako jabe partikularrak jarri ditzaken eragozpenak salbu. Tasari dagokionean, ez kobratzea erabaki da, eta azkenik argia eta ura erabiltzeko baimena ematea erabaki da. Erabilitako kokalekua erabilpenaren aurretik zegoen moduan utzi beharko da, ezbeharrrik gertatzekotan eskatzailearen ardura izango da.

-2. Herrira Txozna "Kotxoa" etxearen aurrean jartzeko baimena (lizentzia) ematea, beti ere afektatutako jabe partikularrak jarri ditzaken eragozpenak salbu. Tasari dagokionean, ez kobratzea erabaki da. Erabilitako kokalekua erabilpenaren aurretik zegoen moduan utzi beharko da, ezbeharrrik gertatzekotan eskatzailearen ardura izango da.

-3. Dantzatako lokaleko behin behineko atea jada kendua dagoela jakinarazten da, eta eskaileraren moldaketa laneai dagokionean, udala saiatuko da festa aurretik lan hoiek egiten.

4.14.-OLAIA SALABERRIA. Festatan “Gazte Eguna” antolatzekeo zenbait eskaera.

Olaia Salaberria Goizuetako Udalera zuzendu da eta festatako “Gazte Eguna” antolatzekeo honako eskaerak egin ditu

Ikastolan bazkaltzeko 80 aulki eta gazte txupinazorako 3 itxafero.

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren, aho batez erabaki du:

1.Udaleko aulkiak erabiltzeko baimena ematea. Antolatzaileen ardura izango da, aulkiak udaletik jaso eta bueltatzea.

2.Itxaferoak antolatzaileen esku jarriko ditu udalak. Dagokion babes eta bestelako neurriak behar bezela hartu beharko dira inolako ezbeharrrik gerta ez dadin. Udala ez da kargu egingo sortu



daitezkeen kalte eta ezbeharrez

4.15.-Andres Narbarte “Xalto” Eskola Publikoa. Konponketa lanak egiteko eskaera

Maria Isabel Salaverria Loyarte eskola Kontseiluburua, Goizueta Udalera zuzendu da, joan den ekainean ospatutako Eskola Kontseiluan erabakitakoa kontutan izanik, datorren ikasturterako egin beharko liraken konponketa lanak zehaztuz eta egiteko eskatuz. Konponketa lan hauek, komonetan, argiterian, lehiotan, kanpoko zabor hontzietan, hondar txokoan, dutxatan, iturrian..... egin beharko lirakela zehazten da.

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren, aho batez erabaki du:

1.Udala egin behar diren konponketa lanen jakinaren gainean gelditzen da eta ahal duen neurrian egingo ditu.

4.16.-PILI PERURENA GOIZUETA. Altzanburuko seinaleen posteen babes neurriak

Pili Perurena Goizueta, udalera zuzendu da eta adierazi du Altzanburuko bideak seinalatzen duen postearen bueltan jarria dagoen alanbre arantzadunan, bi betizuru isatsa biribilkatuta hautsi egin zaiela eta alanbreak kendu egin dituztela. (argazkiak eranstu ditu, posteko alanbre arantzadunetan betizuaren isatza biribilkatua gelditu dela egiaztatzen dueña). Guzti hau kontutan izanik, poste hauek beste modu batean babestea eskatu du

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren, aho batez erabaki du:

1.Dagokion neurriak hartuko dituela, seinale posteen babes neurriak aldatuz.

4.17.-PAULA MATANGO SUAREZ. Festatan postua jartzeko baimen eskaera

Paula Matango Suarez Goizueta Udalera zuzendu da eta Goizueta 2018ko Amabirjin jaietan, (Umeen egunean eta Abuztuaren 14tik 18ra) jostailuak saltzeko postua jartzeko baimena eskatu du.

Aurtengo festatako antzeko 10 postu jartzeko eskaera egon direnez, eta plaza inguruan ez dagoenez hainbat postu jartzeko lekurik, 4 baimentzea eta lau erreserban edukitzea erabaki du. Horretarako batzarrean bi zozketa egin dira. Lehengo zozketa, 4 postu baimentzeko, eta bigarren zozketa erreserban gelditu direnen artean lehentasuna ezartzeko.

Bigarren zozketan, Paula Matango Suarezen eskaera atere da, erreserbako bostgarren postuan

Idazkariak, bide publiko eta herrilurretako zoru, hegaldua eta zorupeko aprobetxamendu berezien prezio publikoak arautzen dituen ordenantza, aplikatu behar dela jakinarazten dio Udalbatzari, aipatutako postuarekin egiten den jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren erabaki du:

1.-Paula Matango Suarezzi eskatutako baimena ezeztea, eta erreserban uztea, aurretik aipatutako postuan. Erreserba zerrrendaz baliatu behar ezker, udalak horrela jakinarazita, eskatzailek baimena izango du, erreserba zerrrendako ordenean eta ondorengo baldintzetan

-Postuaren tamaina 3 metro luze eta 1,5 metro zabal baino handiagokoa ez da izango, eta ezingo da postuaren ondoan ibilgailurik aparkatu

-Erabilitako edo okupatutako kokalekua erabilpenaren aurretik zegoen moduan utzi beharko da.

-Ezbeharrik gertatzekotan lizentziaren titularraren ardura izango da.

-Goizueta Udalak erabakiko du eta zehaztuko du postuaren kokalekua.

-Postua kokatzen den momentutik, lizentzia begi bistan egon beharko da.

-Postuan saltzen egon behar duen pertsonak, tasa ordainduta dagoenaren ziurtagiria Udaletxeko langileen eskura eduki beharko du.



2.-Tasa dagokionean postua instalatua egon behar duen egun bakoitzeko 12 € kobratzea, akordio honi eransten zaion zerga jakinarazpenean zehazten delarik zenbatekoa.

4.18.-WILLIAN CANDO GUERRERO. Festatan postua jartzeko baimen eskaera

Willian Cando Guerrero Goizuetako Udalera zuzendu da eta Goizuetako 2018ko Amabirjin jaietan, (Umeen egunean eta Abuztuaren 14tik 18ra) bisuteria, konplementoak eta Ekuadorko artisautza saltzeko postua jartzeko baimena eskatu du.

Aurtengo festatako antzeko 10 postu jartzeko eskaera egon direnez, eta plaza inguruan ez dagoenez hainbat postu jartzeko lekurik, 4 baimentzea eta lau erreserban edukitzea erabaki du. Horretarako batzarrean bi zozketa egin dira. Lehengo zozketa, 4 postu baimentzeko, eta bigarren zozketa erreserban gelditu direnen artean lehentasuna ezartzeko.

Bigarren zozketan, Willian Cando Guerreroren eskaera atere da, erreserbako seigarren postuan

Idazkariak, bide publiko eta herrilurretako zoru, hegaldura eta zorupeko aprobetxamendu berezien prezio publikoak arautzen dituen ordenantza, aplikatu behar dela jakinarazten dio Udalbatzari, aipatutako postuarekin egiten den jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren erabaki du:

1.-Willian Cando Guerrerori eskatutako baimena ezeztea, eta erreserban uztea, aurretik aipatutako postuan. Erreserba zerrrendaz baliatu behar ezker, udalak horrela jakinarazita, eskatzailek baimena izango du, erreserba zerrrendako ordenean eta ondorengo baldintzetan

-Postuaren tamaina 3 metro luze eta 1,5 metro zabal baino handiagokoa ez da izango, eta ezingo da postuaren ondoan ibilgailurik aparkatu

-Erabilitako edo okupatutako kokalekua erabilpenaren aurretik zegoen moduan utzi beharko da.

-Ezbeharririk gertatzekotan lizentziaren titularraren ardua izango da.

-Goizuetako Udalak erabakiko du eta zehaztuko du postuaren kokalekua.

-Postua kokatzen den momentutik, lizentzia begi bistan egon beharko da.

-Postuan saltzen egon behar duen pertsonak, tasa ordainduta dagoenaren ziurtagiria Udaletxeko langileen eskura eduki beharko du.

2.-Tasa dagokionean postua instalatua egon behar duen egun bakoitzeko 12 € kobratzea, akordio honi eransten zaion zerga jakinarazpenean zehazten delarik zenbatekoa.

5.- 2017KO UDAL KONTUEN BEHIN BETIKO ONARPENA

Nafarroako Toki Administrazioa arautzen duen 6/1.990, uztailaren 2ko Foru Legearen 273 artikulua agintzen duenaren arabera eta Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituen 2/1.995, martxoaren 10eko Foru Legearen 242 artikulua agintzen duenaren arabera, 2017 urteko Udal kontuak, jendaurrean egon diren 15 egun balioduneko epean, inolako erreklamaziorik egin ez denez, Goizuetako Udalbatzak aho batez, 2017 ekitaldiko kontuak **behin betiko onartzea** erabaki du.

6.- PLAN EKONOMIKO FINATZIEROAREN ONESPENA

Visto el expediente de liquidación de las cuentas del ejercicio 2017, del que se deduce que se han incumplido los límites fiscales previstos en la Ley Organica 2/2012 de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, en lo que respecta a la regla fiscal de estabilidad presupuestaria

Visto informe de la Secretaria Interventora sobre el Plan Económico Financiero a aprobar, de fecha 25 de mayo de 2018, en el que se concluye que la estrategia de actuación y medidas a adoptar,



será vigilar la ejecución del presupuesto 2018 de manera que se adopten las medidas necesarias para el cumplimiento de las reglas fiscales en el momento de su liquidación. En cuanto al presupuesto 2019 se aprobará y vigilará su ejecución que también cumpla con éstas reglas fiscales.

La puesta en marcha del plan se ejecutará vigilando la ejecución del presupuesto 2018 para que se cumplan las reglas fiscales

Y el control y seguimiento del plan, se realizará mediante controles de ejecución del presupuesto, y finalizará con la liquidación del presupuesto 2018 y la aprobación y liquidación del presupuesto 2019, que deberá ajustarse a los objetivos marcados.

Vistos estos antecedentes, la Corporación acuerda por unanimidad:

1º-Aprobar el Plan Económico Financiero que se ha tenido que formular por el incumplimiento de la regla de estabilidad presupuestaria en la liquidación del ejercicio 2017.

2º-Comprometerse a vigilar y dar seguimiento a la ejecución presupuestaria del ejercicio 2018 y 2019 para mantener el cumplimiento de las reglas fiscales en el momento de la liquidación del Presupuesto.

7.- 2018/2019 KANPAÑAKO PROIEKTUAREN ONARPENA

Enrique Montero Santa Eugenia baso ingeniari teknikoak, Basartea SL-ren izenean “2018/2019 Kanpainan Goizuetako Komunalean burutu behar diren baso lanen” proiektua idatzi du. Proiektua aztertu ondoren, udalbatzak aho batez onartzea erabaki du

8 . - GOIZUETAKO KOMUNALEKO IXKIBI ETA BESTE PARAJE EZBERDINETAKO ETA TANTAILEPO, OKILLEGI, EPELEKO TXOKOA, GAINZIN-PARAJEETAKO BASO-USTIAPENAREN HUTSIK DEKLARATUTAKO SUBASTA. PROZEDURAREN JARRAIPENA

2018ko ekainaren 26an ospatutako udalbatzan, hutsik deklaratu zen, Ixxibi eta Beste paraje ezberdinetako eta Taintailepo, Okillegi, Epeleko Txokoa, Gaintzin, parajeetako baso ustiapenaren enkantea.

Nafarroako Toki Administrazioako 6/90 Foru Legearen 166 artikulok xedatzen duenaren arabera, eztabaidatu egin da, aipatutako egur lotearen gainean, % 10eko jaitsierarekin bigarren enkante bat egin edo ta eskaintza ekonomiko berria jaso eta dagokion balorazio txostena eskatu Nafarroako Gobernuko Mendietako Zerbitzuari

Udalbatzak aho batez erabaki du eskaintza berriak jasotzea, horretarako datorren abuztuaren 8 arteko epea onartuz

Beraz eskaintza ekonomiko berriak jasoko dira, “Ixxibi eta Beste paraje ezberdinetako eta Taintailepo, Okillegi, Epeleko Txokoa, Gaintzin” parajeetako egur lotearen gainean, eta dagokion balorazio txostena eskatuko da Nafarroako Gobernuko Mendietako Zerbitzuari.

9.-4 POLIGONOKO 26 PARTZELAN ATERPE BAT EGITEKO XEHETASUN AZTERLANA. BEHIN BETIKO ONARPENA

2018ko ekainaren 18ko Alkatearen Ebazpen bidez, Patxi Bakero Escuderok sustatutako eta Miguel Saldaña Zabalegui arkitektoak idatzi eta sinatutako Goizuetako 4 poligonoko 26 partzelaren aterpe bat egiteko xehetasun azterlanari hasierako onarpena eman zitzaion.

Aipatutako xehetasun azterlana, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Diario de Navarra eta Diario de Noticias aldizkarietan, eta Udaleko Iragarki oholean, argitaratu eta jendaurrean egon da



Jendaurreko izapidetza epean ez da alegaziorik aurkeztu.

Hau honela izanik, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74. eta 79. artikuluetan xedatuarekin bat, Udalbatzak aho batez erabaki du

1).-Patxi Bakero Escuderok sustatutako eta Miguel Saldaña Zabalegui arkitektoak idatzi eta sinatutako Goizueta 4 poligonoko 26 partzelaren aterpe bat egiteko xehetasun azterlanari behin betiko onarpena ematea

2).-Xehetasun azterlanaren behin behineko onarpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3).-Aipatutako xehetasun azterlanaren behin behineko onarpenaren berri Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzan eskumendun den departamentuari eta sustatzaileari ematea.

10.-ERAKUNDE ADIERAZPENA. EUSKARALDIA UDAL ESPARRUAN SUSTATZEKO

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Euskara Zerbitzutik, ondorengo erakunde adierazpena igorri da, osoko bilkuran onartzeko.

“EUSKARALDIA UDAL BARRUAN SUSTATZEKO ERAKUNDE-ADIERAZPENA

Nafarroan bi hizkuntza ditugu ofizialak: euskara eta gaztelania. Begi bistakoa da, ordea, bi hizkuntzok ez daudela oreka egoera batean, ez esparru publikoan ez eta gizartean ere: gaztelania da nagusi. Uste dugu orain arteko ahaleginarekin bakarrik ez direla bi hizkuntzak parekatuko, indar gehiago jarri behar dugula hizkuntza-berdintasuna bultzatzeko; euskara lehenetsi behar dugula, alegia. Izan ere, gizarte-, genero- eta hizkuntza-berdintasuna lortzea dugu helburu, eta, horrenbestez, horretara bideratutako urratsak egitea.

UNESCOrentzat ere munduko hizkuntza-ondarea zaintzea eta hizkuntza gutxituak garatu ahal izatea da mende honek duen erronkarik garrantzitsuenetako bat. Izan ere, 7.000 hizkuntza inguruk osatzen dute munduko hizkuntza-ondarea. Munduko biztanleen % 97k hizkuntzen % 4 hitz egiten du ama-hizkuntza gisa, eta biztanleen % 3k hitz egiten du hizkuntzen gainerako % 96a. Horrela, bada, hizkuntza gutxi batzuk dira nagusi munduan, hizkuntza txiki eta gutxitu askorekin elkarbizitzan.

Nafarroan ere hizkuntza asko hitz egiten dira eta ikasi beharko dugu aniztasun hori egoki kudeatzen; baina bizikidetzaren osasuntsu baterako lehen urratsa euskara eta gaztelaniaren arteko elkarbizitza orekatua lortzea da.

Norabide horretan, euskara biziberritzeko beharrezkoa dugu norbanakoen, gizartearen eta administrazioen arteko ahaleginak uztartu eta elkar elikatzen jarraitzea, eta, era berean, premia-kotzat jotzen dugu hizkuntza gutxituen aldeko hizkuntza-arau sozial berriei ere lekua egitea.

Guztion elkarlanari esker, euskararen normalizazio-prozesuak ibilbide oparoa izan du azken hamarkadetan, emaitza aipagarria da, baina, prozesu guztiek bezala, argi-itzalak ditu; bada pozik egoteko arrazoirik, baita kezkatzeko daturik ere.

2016. urtean egindako VI. Inkesta Soziolinguistikokoaren arabera, ezagutza-datuek nabarmen egin dute gora azken hamarraldietan, baina erabilera ez da neurri berean hazi.

Beraz, euskararen normalizazio-prozesua inflexio-puntuan dago, fase baten amaieran eta beste baten atarian. Aro berri horretan, agerikoa da erabileran jarri beharra dagoela indarra.

Euskararen ulermenari ez diogu behar besteko garrantzirik eman; izan ere, erabileraren korapiloa askatzeko gako nagusi bat ulermena da. Alegia, euskararen ulermenaren balioa azpimarratuz gero, ulermena erabat zabalduz gero, euskararentzat eta herritarrontzat erabilerarako eremu zabal eta emankorra zabalduko dugu. Kontuan hartzeko datu bat: Nafarroako udalerrri euskaldunetan ulermena % 80tik gorakoa da.

Euskaldia, 11 egun euskaraz, azaroaren 23tik abenduaren 3ra



Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Topaguneak, Nafarroako Gobernuarekin eta beste hainbat eta hainbat eragilerekin elkarlanean, abian jarri dute Euskaraldia ekimena. Gure udalerrria ere buru-belarri sartu da, eta ekinbidea burutzeko batzordeak lanean dihardu.

Ekimen horretan 11 egunetan hizkuntza-praktika berri bat gauzatzera gonbidatuko ditugu herritarrak. Ariketa horren subjektuak 16 urtetik gorako helduak izango gara, eta 11 egunez hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa kolektibo bat egitea da proposamena, indarra ulermenean jarrita. Bi subjektu-mota bereizi dira: *ahobizi* eta *belarriprest*.

Ahobiziek, 11 egun horietan, euskarari eutsiko diote solaskideak euskaraz ulertzen duen guztietan, eta, belarriprestek, aldiz, solaskideak beraiekin euskaraz aritzera gonbidatuko dituzte, nahiz eta belarriprestak berak euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.

Ekimenaren helburua hau da, besteak beste: ariketa praktikoa horren bidez ikusaraztea eta biziartzea hizkuntza-ohiturak euskararen erabileraren mesederako alda ditzakegula, eta, ahal dela, 11 egun horiek igaro eta gero, hizkuntza-praktika berri horiei eustea, herrian bertan zein herritik kanpo”.

Horregatik guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:

ERAKUNDE ADIERAZPENA

Goizueta ko Udalak honakoa adierazi nahi du:

- ! Udalbatzak bat egiten du Euskaraldiarekin eta ekimenaren sustatzaile izango da. Horrenbestez, erantzukizunez eta eredugarritasunez jokatzeko konpromisoa hartzen du.
- ! Ordezkeri politikoon egiteko nagusia izango da Euskaraldiaren markoan eta bereziki udal barrura begira ekimena zabaltzea. Horrenbestez, ekimen honetan ahalik eta *ahobizi* eta *belarriprest* gehien aktibatzekeko urratsak egingo ditugu, arduradun politikoak zein langileak izan.
- ! Ahobiziek euskara ulertzen duten guztiekin euskaraz aritzeko konpromisoa hartzen dugu.
- ! Belarriprestok gainerakoak gonbidatuko ditugu gurekin euskaraz egin dezaten, nahiz eta guk euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.
- ! Udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktika horiek posible egiteko eta etorkizunean eutsi ahal izateko.
- ! Udalak, ekimenaren sustatzaile gisa, udal barruan ez ezik, udalerrian ere herritarrak gonbidatuko ditu Euskaraldia ekimenean parte har dezaten, eta izena emateko bideak erraztuko ditu.
- ! Udalak bat egiten du ekimena Euskal Herriko beste hainbat eragilerekin,



elkarlanean eta batera garatzearekin.

Udalbatzak aho batez erakunde adierazpenarekin bat egin du.

11-ALKATEAREN EBAZPENAK

Alkatearen ebazpenen berri ematen du Alkateak, **2018-067tik 085ra** zenbakia duten alkatearen ebazpenak dira. Udalbatza jakitun gelditzen da eta aho batez berretsi egiten ditu

-67 zenbakia: Umore Ona Elkartea, San Juan bezperan plazan afaria egiteko baimena

-68 zenbakia: Maio Etxeko jabeakideak, Maio Etxea birgaitzeko obra baimena

-69 zenbakia: Maria Jose Zabala Goizueta, kaltegabeko jarduera sailkatu baimena

-70 zenbakia: Jose Manuel Zabala Zubieta, Loidine etxeko beheko solairuko etxebizitzan egokitzapen obrak egiteko obra baimena

-71 zenbakia: Euskara Mankomunitatea, Ganbara erabiltzeko baimena, ekainaren 26ean

-72 zenbakia: Pako Altzuri eta Servicios Forestales SLU, Alkantzuriain eta Alkasoaldeko pistak erabiltzeko baimena, mendi ustiapena egiteko.

-73 zenbakia: Zubimuxu aterpetzeko arretaz eta informazio puntuaz arduratzeko, aldi baterako langilearen kontrataziorako izangai onartu eta baztertutakoen behin behineko zerrendaren onarpena

-74 zenbakia: Angel Salaberria eta Fernando Goia langileen opor egunen onarpena

-75 zenbakia: Jose Ramon Jimenez Izal, sutako egurra aprobetxatzeko baimena

-76 zenbakia: Umore Ona Elkartea, Karmen bezperan plazan afaria egiteko baimena.

-77 zenbakia: Zubimuxu aterpetzeko arretaz eta informazio puntuaz arduratzeko, aldi baterako langilearen kontrataziorako izangai onartu eta baztertutakoen behin betiko zerrendaren onarpena

-78 zenbakia: Construcciones Zabala y Goikoetxea, Maio Etxeko birgaitze obra egiteko obra tresneria jartzeko baimena

-79 zenbakia: Lizelan SL, 2017/2018 mendi kanpainako udako mendi garbiketa lanen esleipena

-80 zenbakia: Lizelan SL, 2018/2019 mendi kanpainako udako mendi garbiketa lanen



esleipena

-81 zenbakia: Umore Ona Elkartea, dantza entsaioak egiteko, Lubineko Pilota plaza, uztailean, asteartetan erabiltzeko baimena

-82 zenbakia: Gestion Ambiental de Navarra SA., SAIH estazioa jartzeko obra baimena

-83 zenbakia: Jose Antonio Lujambio Huici, matarrasa egiteko hasierako izapidetza

-84 zenbakia: Alkatearen eskuordetza, oporretarako

-85 zenbakia: Zubimuxu aterpetzeko arretaz eta informazio puntuaz arduratzeko, aldi baterako langilearen kontrataziorako lanpostua hutsik deklaratzeko

12.-ESKARI ETA GALDERAK

Alkateak eskari edo galderarik ba ote duten galdetzen die udalbatzako kideei. Galdera edo eskaririk egiten ez denez, arratsaldeko zortziak hamar gutxi direnean alkateak bukatutzak eman du bilera, nik, Idazkariak ziurtatzen dut